



EUSKARAREN BABESA NAZIOARTEKO ARAUDIAN

IRAKASGAIA: Euskararen Arauak Eta Erabilerak Arlo Juridikoan

1

Ladislao IÑURRITEGUI

AURKIBIDEA:

I. Sarrera II. Nazioarteko araudia: 1. Nazio Batuen Erakundearen araudia 1.1 NBERen dokumentu esanguratsuenak 2. Europar Batasunaren araudia 2.1 Europar Kontseiluaren araudia 2.2 Europar Parlamentuaren araudia 3. UNESCOren ekarpena **III. Nazioarteko araudiaren eraginkortasuna IV. Ondorioak Bibliografia.**

I. Sarrera

Euskarak dituen babesen inguruan hitz egiterakoan askotan alde batera uzten dugu nazioarteko araudia. Azken hau, baina, garrantzitsuagoa da askoren ustez estatu mailan daukagun barne araudia. baino

Gutxiespen honen arrazoi nagusia zera da:nazioarteko araudiak euskara babesten duela, bai, baina hizkuntza gutxiengoaren markoaren barnean, zuzeneko erreferentziarik egin gabe. Aldiz, barne araudian badauzkagu hainbat lege non euskararen alde egiten duten espresuki; hor daukagu adibidez EAEko autonomia estatutuaren 6. artikulua, non kontsideratuz euskara euskal lurraldeen hizkuntz propioa dela hizkuntz ofizialen kategorian txertatzen du.

Bestelako arrazoi bat aipatzekotan, nazioarteko araudiaren aplikagarritasuna ez dela argi ikusten adieraz genezake. Adierazi dugun bezala, barneko araudiak modu zehatzean (hau da, euskara babesten du zuzenean) arautzen duenez babesa, nazioartekoa aplikatzeko beharra ez dagoela dirudi.

Baina horrek ez du zertan horrela izan behar. Nazioarte mailako araudia oso zabala da, eta babes handi bat adierazten du euskararentzat. Hizkuntza gutxiengo bat izanik, maila bereko gainerako hizkuntzei dagozkien eskubide berberak ditu, eta ondorioz, kontuan hartu beharreko ditugu eskubide hauek.

Beraz, lan honen helburua izango da hizkuntza gutxiengoaren inguruan dagoen nazioarteko araudia bilatzea eta aztertzea kasuz kasu, izaera eta eraginkortasuna kontuan hartuz. Horren arabera, ea kontuan hartzeko edo alde batera uzteko modukoa den erabaki ahal izango dugu amaieran konklusio bezala.



II. Nazioarteko araudia

Adierazi dugun bezala, nazioarteko araudia oso zabala da hizkuntza eskubideen inguruan. Modu argi batean ikus dezagun, erakunde desberdinen arabera sailkatuko dugu, hau da, erakunde bakoitzak araugintzaren inguruan nola jardun duenaren arabera.

1. Nazio Batuen Erakundearen araudia



Mundu osoan aurki ditzakegun erakunde guztietatik [Nazio Batuen Erakundea](#) (NBE) da dudarik gabe pisu handiena duena. 1945 urtean sortu zenetik bere zeregin nagusia mundu osoan zehar lankidetzak ekonomiko, sozial eta kultural bat bultzatzea izan da .

1.1 NBEren dokumentu esanguratsuenak

Aipatutako azken helburuarekiko (Lankidetzak kulturala) NBEk gero eta irizpide garbiagoa erakutsi du hizkuntzen babesaren jardueran. Hasiera batean emandako zeharkako adierazpenetatik hasita, gero eta araudi finkoagoa ematen jarraitu da. Eboluzio hori hobeto erakusteko, hemen daukagu bere baitan emandako dokumentu esanguratsuenak kronologikoki adierazirik:

1) [Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala](#) (1948)

NBEk emaniko dokumenturik garrantzitsuena dugu, nahiz eta eraginkortasun juridiko eskasa izan. Bestetik, hizkuntzekiko egiten den erreferentzia oso zeharkakoa da, 2.1. artikuluan adieraziz inor ez dela izango diskriminatua hizkuntza arrazoiengatik. Oinarri moduan oso egokia dela kontsideratu dezakegu dena den. Barne araudia interpretatzeko oso esanguratsua egin daiteke.

2) [Ekonomia, gizarte eta kultura eskubideen nazioarteko ituna](#) (1966)

Aurrekoaren ildo berdinean jarraitzen du, adierazpen ia berbera eginez 2.2. artikuluan, non honen arabera estatu-kideek beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dituzten pertsonak diskriminaziorik ez jasateko ituneko eskubideak egikaritzekoan.



3) [Eskubide Zibil eta Politiko Nazioarteko Ituna](#) (1966)

Hitzarmen honek egiten duen adierazpenak benetako aurrerapauso bat adierazten du aurretik ikusitakoarekin konparatuta. 27. artikuluan adierazten da hizkuntza gutxiengoek beraien hizkuntzan jarduteko eskubidea ezin izango zaiela ukatu. Beraz, itun honek lehenengo aldiz burutzen hizkuntza gutxiengo baten babes zuzena ekartzen du, bere erabilera bermatuz.



4) [Haurren Eskubideei Buruzko Adierazpena](#) (1989)

Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak aurreikusitako eskubide berbera zabaltzen die haurrei 30. artikuluan. Honen arabera, estatu baten hizkuntza gutxiengoko taldeak egonda, ez zaie talde jakin horietako umeei eragotziko gutxiengoko hizkuntza horretan mintzatzea.

5) [Hizkuntza eta Erljio Gutxiengo Nazional edo Etnikoetako Pertsonen Eskubideen Adierazpena](#) (1992)

Beste aurrerapauso bat: dokumentuak, hizkuntza gutxiengoen taldeak babesteaz gain estatu-kideak behartzen ditu 1. artikuluan, beharrezkoak diren neurriak har ditzaten hizkuntzarekiko babesa egokia izan dadin.

6) [Vienako Adierazpena](#) (1993):

Hizkuntzaren erabilerarekiko adierazpen zuzenago bat egiten da hemen. Honen arabera, hizkuntza gutxiengoko pertsona orok izango du eskubidea bere hizkuntza propio hori erabiltzeko bai bizitza pribatuan zein publikoan, inolako interferentziaren edo bazterketaren biktima izan gabe.

7) [Hizkuntza eskubideen Adierazpen Unibertsala](#) (1996):

Hizkuntza eskubideen inguruan, azken dokumentu hau kontsidera dezakegu esanguratsuena; aurreko guztiek ez bezala, ez ditu zeharka edo bestelako eskubideekin batera arautzen hizkuntza eskubideak, baizik eta hauei espresuki bideraturiko (izenburuak dioen gisara) dokumentua da.

Aurretik ikusi ditugun hizkuntza eskubide asko ez ziren errespetatzen. Hizkuntza nagusiak gailentzen jarraitu zuten, hizkuntza gutxiengoak alde batera utziz. Egoera honekin amaitzeko egin zen adierazpen hauartzelona, 1996 urtean.



Adierazi dugun moduan, behar den moduan osaturiko adierazpena da. Hizkuntza eskubideek bere baitan dituzten eskubide indibidualak eta kolektiboak kontuan hartuz, arlo guztietan egin beharreko lana eta hartu beharreko neurri zehatzak ezartzen ditu, estatu kideek garbi izan dezaten zeintzuk diren jarraitu beharreko pausoak hizkuntza eskubideak bermatzerako orduan estatu barnean.

Ikusten denez bilakaera bat eman da NBEk garatutako araudiaren inguruan; denbora aurrera egin ahala, hizkuntza eskubideekiko araudia gero eta zehatzagoa eta finkoagoa bilakatu da.



2. Europar Batasunaren araudia

Europa mailan ere badaukagu hizkuntza gutxiengoen alde egiten duen araudia (beraz, euskararen alde ere), [Europar Batasunaren](#) baitan eman dena. Espainia eta Frantzia Batasuneko kide direnez, araudi hori loteslea izango da beraiekiko.

Batasunaren barnean, batez ere deigarriak egiten zaizkigun erakundeak [Europar kontseilua](#) eta [Europar Parlamentua](#) dira, beraz, hauek emandako araudia aztertuko dugu.

2.1 Europar Kontseiluaren araudia

[Europar Kontseiluaren](#) funtzio nagusia Batasunaren garapena bultzatzea da. Izaera politikoa du nagusiki, eta bertan eztabaidatzen dira Batasunaren funtzio eta lan nagusiak. Ez dugu [Europar Batasuneko Kontseiluarekin](#) nahasi behar, azken honen izaera legegilea delarik.

Hizkuntza eskubideen inguruan, bi ditugu batez ere interesgarriak egiten zaizkigun dokumentuak: *Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna* eta *Nazio Gutxiengoak Babesteko Hitzarmen Orokorra*

1) [Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna](#)



1992an sinaturiko gutuna dugu hau, non ekarpen handiak ekarri zituen Europar Batasunaren eremuan. *Hizkuntza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren* ildo jarraituz, honen eremu berdinak arautzen ditu, baina batez ere hizkuntza eskubideen inguruan hartu beharreko neurriak adieraziz; adibidez, hizkuntza gutxiengoaren babesa bizitza publikoren eremuan: irakaskuntzan nolako pausoak eman behar diren hau egokia izateko, komunikabideetan nola erabili behar diren, herritarrak administrazioarekin komunikatzerakoan nola jardun behar den (hau da, herritarrak eta administrazioak) hizkuntza erabiltzerakoan...

2) [Nazio Gutxiengoak Babesteko Hitzarmen Orokorra](#)

1994 urtekoa dugu hau berriz. 5 eta 10 artikulua egiten dira hemen deigarri. Hitzarmenaren kide diren estatuak bermeak hartzen dituzte hizkuntza gutxiengoak babesteko.



2.2 Europar Parlamentuaren araudia

Europar Parlamentua dugu kontuan hartu beharreko beste erakundea. Hiru funtzio nagusi ditu:

- Europar legeria aztertzea eta erabakitzea.
- Batasunaren aurrekontuak onartzea.
- Bestelako erakundeen gain kontrol demokratikoa gauzatzea.

Bestetik ere, nazioarteko hitzarmenak eta Batasuneko kide berriak onartuko ditu.

Beraz, hainbatekoak izango dira Europar Parlamentuaren eginbeharrak.

Hizkuntza eskubideei dagokionez, hainbatekoak dira onartu diren testuak hauen mesederako. Gomendioak dira nagusiki, beraz eraginkortasun eskasekoak. Hauek dira aipatuko ditugunak:

1) *Ciril txostena*

1981koa dugu. Europako eremu urriko hizkuntzen hezkuntza eta kultura arazoei buruz mintzatzen da. Europar kultura babesteak Europar Batasunari mesedea egingo diola adierazten da, beraz, hizkuntza gutxiengoak babesteko beharra azpimarratzen da.

2) *Arfe gomendioa*

Bi testutan oinarritzen da gomendio hau, bata 1981 urtean emana eta bestea 1983an

1981eko testuan, kontuan hartzen da garai hartan Europan zehar hizkuntzen eremuan ematen ari zen mugimendua (Espainian, adibidez, Frankismoa igaro ondoren euskarak ofizialtasuna lortu zuen azkenik). Horrekiko, politika zehatzak aurrera eramatea eskatzen zaie estatuei gomendio honetan, hizkuntzen eremuko mugimendu horri beharrezkoak ziren bermeak emateko. Beraz, hainbateko eskakizunak egingo dira alor desberdinekiko:

- Komunikabideak hainbat hizkuntzatan eskuragarriak izatea (telebista, egunkariak, irratia...)
- Hezkuntza osoa (hautzarotik unibertsitatera) hainbat hizkuntzatan egiteko aukera izatea
- ...

1983ko testuan, datu esanguratsu bat kaleratzen da; Europar Batasunean bizi diren pertsonetatik, 30 milioik hizkuntza gutxiengo bat zuten ama hizkuntzatat. Beraz, hauen hizkuntza eskubidea behar den moduan babesteko berme jakinak hartzeko garrantzia azpimarratzen da, kasu gehienetan biztanle jakin horiek ez baitzuten inolako babesik beraien hizkuntza erabiltzeko bizitzaren hainbat arlotan, batez ere administrazioaren harremanetan jartzerakoan edo hezkuntza jasotzerakoan.



3. UNESCOren ekarpena

Askotan entzun dugu [UNESCO](#) erakundearen izena, baina zein da bere benetako helburua? Zibilizazio, kultura eta herrien arteko elkarriketa bultzatzea, hain zuzen. Beraz, hizkuntzekiko zeresana baduela uler dezakegu. Hizkuntza eskubideen eta hizkuntza gutxiengoaren inguruan emandako ebazpenak aurki ditzakegu bere baitan.

Alde batetik *Kultur Aniztasunaren Aldeko Adierazpen Unibertsala* dugu. 2002an emandako adierazpena dugu hau. Honen bidez, erakundeak hizkuntza eskubidea kultura eskubidearen barnean txertatzen du. Bai bata eta bai bestea oinarrizko eskubideak direnez, erakundeak interesa duen alorrekoak gainera, kontuan hartu beharrekoak dira. Nahi den hizkuntzaren bidez komunikatzeko aukera aurreikusten da beraz, inolako jazarpenik jasan behar izan gabe, askatasun osoz.



Bestetik, [Kultura Adierazpen Aniztasuna Babesteko eta Sustatzeko Konbentzioa](#) daukagu, 2005ekoa. Hemen ere hizkuntza aniztasuna munduko kultura aniztasunaren ezinbesteko osagarria dela adierazten da. Erakundearen lana kultur aniztasun hori defendatzea izanik, erantzukizun berbera izango du hizkuntza aniztasunarekiko. Beraz, konbentzioak estatu parte-hartzaileak beharrezko neurriak hartzera bultzatzen ditu, lurralde bakoitzeko hizkuntza aniztasuna bermatua gera dadin.

III. Nazioarteko araudiaren eraginkortasuna

Askotarikoak dira orain arte ikusi ditugun araudiak. Baina bada garaia hasiera batean egin dugun adierazpena berriz mahaira ekartzeko; nolako eraginkortasuna izan dezakete araudi hauek? Alde batera utzi beharko genituzke, kontsideratuz beraien eraginkortasun falta dela eta ez direla kontuan hartu beharrekoak?(hasieran adierazi dugun bezala, hau da askok egiten dutena tamalez).

Inolaz ere ez. Kontuan izan behar dugu hasiera hasieratik eraginkortasuna badutela, hau da, sinatzaileak diren estatuak edukia errespetatu beharko dutela, hau egiteko konpromisoa hartu baitzuten sinatze horren bidez. Itun, akordio, hitzarmen, edozein izanda ere araudiaren izena, estatu jakinen ordenamendu juridikoaren parte bilakatzen dira automatikoki eta ondorioz, barne araudia bezain errespetagarri.

Eman daiteke araudi batetik bestera aplikazio eredu berdina ez egotea (adibidez, Europar Batasunetik datorren araudiak aplikazio eredu desberdina du bestelakoekin konparatzen badugu), edo araudien izaera bera ere ez izatea berdina kasu guztietan: zuzenean bete beharreko arauak, barne araudia interpretatu ahal izateko arauak (Espainiako konstituzioak 14 eta 29 bitartean arautzen dituen oinarrizko eskubideak interpretatzerakoan adibidez, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren bidez egin beharra dago)...baina horrek ez du izaeraz duten eraginkortasunean zertan eragin.

III. Ikasleen ekarpenak



7

Eraginkortasun falta ematekotan, hau estatu kide edo sinatzaileen jarrerari lotu beharko genioke, ez araudiaren izaerari. Ez dira kasu gutxi eman non, estatu sinatzaile batek ez dituen hartutako konpromisoak behar bezala betetzen.

Baina egoera hauei aurre egiteko bideak badaudela kontuan hartu behar dugu; estatu batek ez badu hizkuntza eskubidearen inguruko nazioarteko araudi bat behar bezala betetzen (eta orokorrean, edozein motatako araudi) nahiz eta horrekiko konpromisoa hartu, badago aukera jarrera horren aurka egiteko.



Adierazi dugun bezala, nazioarteko ordenamendua barne ordenamenduan barneratzen da estatu jakinak sinatzea erabakitzen duenean. Horren arabera, zuzen zenean aplikagarria izanik araudia, badago aukera auzitegi arruntetan baliatzeko aukera.

Bestetik, kontuan har dezakegu ere Luxenburgoko justizia auzitegia ([Europar Batasuneko Justizia Auzitegia](#)). Bera da Batasunaren gaitan jurisdikzioa duen auzitegi jakina. Bere lana izango da Batasuneko zuzenbidea modu berdintsuan interpretatu eta aplikatuko dela bermatzea estatu kide guztietan. Beraz, hizkuntza eskubideen inguruan hauetako bat ez bada behar den moduan euskararekiko aplikatzen, bertan tarteratu beharko litzateke auzia.

Hortaz, nazioarteko araudian eraginkortasunik ez dagoela adieraztea ez litzateke egokia izango. Eraginkortasuna badago, eta baita ere eraginkortasun hori egikaritzeko hainbat baliabide.

IV. Ondorioak

Amaitzeko, esan genezake nazioarteko araudian hizkuntza eskubideen babesa nabarmenki jorratu dela, eta ondorioz euskarak baduela babes maila esanguratsu bat horren baitan.

Baliteke estatuek eskubide eta babes hauek oso modu orokorrean interpretatu izana, eta ondorioz euskararen normalizazioarekiko lana ez izatea beharrezkoa izan beharko litzatekeen modukoa (Frantzia adibidez, Iparraldeko euskararekin, eta Espainian, Nafarroako lurralde ez euskaldunean), baina ez dugu ahaztu behar araudia badagoela, eta baliatzeko aukera osoa daukagula.

Eraginkortasunari begira hartu beharko lirateke erabaki gehienak beraz, hemen ematen baitira arazo gehienek; araudi zabala dugu, baina ondo aplikatzen dela bermatzea behar beharrezkoa dugu ere.

Bibliografia

III. Ikasleen ekarpenak



[HTTP://WWW.EHU.EUS/EHUSFERA/GARALEX/FILES/2009/09/HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK-ADMINISTRAZIOAN-ETA-JUSTIZIAREN-ESPARRUAN_ITSASO-GONZALEZ1.PDF](http://www.ehu.eus/ehusfera/garalex/files/2009/09/HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK-ADMINISTRAZIOAN-ETA-JUSTIZIAREN-ESPARRUAN_ITSASO-GONZALEZ1.PDF)

[HTTP://WWW.EHU.EUS/EHUSFERA/GARALEX/FILES/2009/09/EUSKARAREN-LEGE-TESTUINGURUA_MIRARI-ARRIOLA.PDF](http://www.ehu.eus/ehusfera/garalex/files/2009/09/EUSKARAREN-LEGE-TESTUINGURUA_MIRARI-ARRIOLA.PDF)

[HTTP://WWW.EUSKADI.EUS/GOBIERNO-VASCO/CONTENIDOS/INFORMACION/FLASH_PROBA/EU_11035/HTML/01_X.HTM](http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/contenidos/informacion/flash_proba/eu_11035/html/01_x.htm)

